# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia | Iruña, 2009ko abuztuaren 18a | 81. ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Cascanteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina. (2. or.).
—Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina. (10. or.).
—Zangozako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina. (13. or.).

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Cascanteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Cascanteko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Cascanteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (2. or.).

**II.** Helburua (3. or.).

**III.** Norainokoa (3. or.).

**IV.** Iritzia (4. or.).

IV.1. Udalaren kontu orokorra (4. or.).

IV.2. Legezkotasuna (4. or.).

IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (4. or.).

**V.** Kontu Orokorraren laburpena (5. or.).

V.1. Aurrekontuaren betetze-maila (5. or.).

V.2. Aurrekontu-emaitza (6. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria (6. or.).

V.4. Egoeraren balantzea (7. or.).

**VI.** Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (8. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (8. or.).

VI.2. Langileak (8. or.).

VI.3. Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa (8. or.).

VI.4. Inbertsioak (8. or.).

VI.5. Inbentarioa-Ibilgetua (9. or.).

VI.6. Hirigintza (9. or.).

Eranskina: Cascanteko Udalaren 2006ko abenduaren 31ko finantzen egoera-orrien oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

### I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Cascanteko Udalaren 2006ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Cascanteko Udalak 63,1 $km^2$-ko azalera du. 3.957 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

| Entitatea | Aitorturiko betebeharrak | Aitorturiko eskubideak | Langileak |
|---|---|---|---|
| Udala | 3.534.565 | 4.657.305 | 25 |

Udala zenbait mankomunitatetan dago sartuta: Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatean –mankomunitate horren bidez kudeatzen dira eta tratatzen dira hiri-hondakin solidoak; Hego Nafarroa Kirol Mankomunitatean –horren bidez kudeatzen dira kirol-jarduerak–; “Valle de Queiles” Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea; eta Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitatean –mankomunitate horrek hornitzen du edateko goi-presioko uraz–.

Bi partzuergotan ere badago udala: Eder Partzuergoan eta Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoan.

Cascanteko Udalari aplikatzekoa den araubide juridikoa batez ere honako hauek osatzen dute:

• Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

• Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.

• 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.

• 10/1998 Foru Legea eta 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoak arautzen dituztenak.

• Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

• 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

• Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

• Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa; eta, laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezkotasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean jaso dugu udalak prestaturiko finantzen egoera-orrien laburpen bat, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Cascanteko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdi esanguratsu guztietan, entitatearen egoera ekonomiko eta finantzarioa, bai eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak; halaber, orokorki onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2006an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2007ko abenduaren 31n.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Cascanteko Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du, zeinaren egoera-orri nagusiak hauek baitira:

• Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

• Udalaren egoera-balantzea.

• Ekitaldiko emaitzen kontua.

Udalak aplikaturiko kontabilitate-araubidea jasota dago 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako kontabilitate-instrukzio orokorrean.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika,

edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarrizko prozedurak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenenak.

Txostenean jasotzen dira udalaren kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Cascanteko Udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzea, bai eta haren edukia ere, udalaren ardura da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritziak dauzkagu:

### IV.1. UDALAREN KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1990ekoa da, eta gaurkotzeko dago.

Aipaturiko salbuespenaren ondorioak alde batera utzirik, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa eta abenduaren 31ko ondare-egoera. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz.

### IV.2. LEGEZKOTASUNA.

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

### IV.3. 2006KO ABENDUAREN 31KO FINANTZA-EGOERA

2006an aitorturiko betebeharrak 3,53 milioi egiten dute. Horietatik, ehuneko 36 ondasun eta zerbitzu arrunten erosketak dira; ehuneko 29, berriz, langile-gastuak; eta ehuneko 26, azkenik, inbertsioak.

Aitorturiko eskubideak, bestalde, 4.66 milioi euro egiten dute: ehuneko 45 transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak dira, eta ehuneko 26, aldiz, zuzeneko zergen bidezko diru-sarrerak.

Kapital-transferentzietan gertatzen da diru-sarreren exekuzio-mailarik apalena, % 42koa; horrek zerikusia du inbertsioetan izan den exekuzio-maila txikiarekin, aurreikusita zeuden zenbait obra ez baitira egin edo ez baitira amaitu.

Aurrezte garbiak 414.750,20 euro egiten du; horrek adierazten duena da udalak baliabide arruntak erabili dituela gastu arruntak eta finantzazamak finantzatzeko.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 287.301,38 eurokoa da; horrenbestez, likidezia dago hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzeko.

2006ko abenduaren 31n, finantza-zorra 1.471.834 eurokoa da.

Udalaren zorpetze-maila da diru-sarrera arrunten ehuneko 6, eta udalak badu, beraz, zorpetzeko ahalmena, muga ehuneko 20an baitago.

## V.1. AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA

### Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

| | Gastuen kapituluak | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko betebehar garbiak | Beteta-koa (%) | Ordainketak | Ordain-ketak (%) | Ordain-tzeko |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Langile-gastuak | 1.039.750,00 | -7.725,04 | 1.032.024,96 | 1.013.411,85 | 98% | 957.414,03 | 94% | 55.997,82 |
| 2 | Ondasunak eta zerbitzuak erostea | 1.289.083,13 | 7.725,04 | 1.296.808,17 | 1.259.618,32 | 97% | 1.202.733,28 | 95% | 56.885,04 |
| 3 | Finantza-gastuak | 52.450,00 | 0,00 | 52.450,00 | 44.914,01 | 86% | 43.932,91 | 98% | 981,10 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 221.380,58 | 0,00 | 221.380,58 | 175.876,74 | 79% | 156.377,72 | 89% | 19.499,02 |
| 6 | Inbertsio errealak | 3.704.203,66 | 1.029.206,21 | 4.733.409,87 | 904.225,63 | 19% | 527.804,75 | 58% | 376.420,88 |
| 7 | Kapital-transferentziak | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0% | 0,00 | 0% | 0,00 |
| 8 | Finantza-aktiboen aldaketa | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 0% | 0,00 | 0% | 0,00 |
| 9 | Finantza-pasiboen aldaketa | 142.043,33 | 0,00 | 142.043,33 | 136.518,85 | 96% | 132.963,68 | 97% | 3.555,17 |
| **Gastuak, guztira** | | **6.448.910,70** | **1.029.206,21** | **7.478.116,91** | **3.534.565,40** | **47%** | **3.021.226,37** | **85%** | **513.339,03** |

### Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

| | Diru-sarreren kapituluak | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko eskubide garbiak | Beteta-koa (%) | Kobrantzak | Kobran-tzak (%) | Kobratzeko |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Zuzeneko zergak | 924.500,00 | 0,00 | 924.500,00 | 1.210.739,14 | 131% | 787.858,90 | 65% | 422.880,24 |
| 2 | Zeharkako zergak | 240.000,00 | 0,00 | 240.000,00 | 153.208,28 | 64% | 91.578,21 | 60% | 61.630,07 |
| 3 | Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 445.531,20 | 0,00 | 445.531,20 | 472.198,11 | 106% | 368.546,38 | 78% | 103.651,73 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 1.104.523,51 | 0,00 | 1.104.523,51 | 1.153.579,62 | 104% | 1.098.763,84 | 95% | 54.815,78 |
| 5 | Ondarezko diru-sarrerak | 38.200,00 | 0,00 | 38.200,00 | 55.364,82 | 145% | 25.212,61 | 46% | 30.152,21 |
| 6 | Inbertsio errealen besterentzea | 1.095.569,72 | 529.396.56 | 1.624.966,28 | 683.435,53 | 42% | 683.435,53 | 0% | 0,00 |
| 7 | Kapital-transferentziak | 1.843.936,27 | 391.166,47 | 2.235.102,74 | 928.779,58 | 42% | 596.864,87 | 64% | 331.914,71 |
| 8 | Aktibo finantzarioak | 0,00 | 108.643,18 | 108.643,18 | 0,00 | 0% | 0,00 | 0% | 0,00 |
| 9 | Pasibo finantzarioak | 756.650,00 | 0,00 | 756.650,00 | 0,00 | 0% | 0,00 | 0% | 0,00 |
| **Diru-sarrerak, guztira** | | **6.448.910,70** | **1.029.206,21** | | **4.657.305,08** | **62%** | **1.005.044,74** | **78%** | **1.005.044,74** |

## V.2. AURREKONTU-EMAITZA

| Kontzeptua | 2006 |
|---|---|
| Aitorturiko eskubide garbiak | 4.657.305,08 |
| Aitorturiko betebeharrak | 3.534.565,40 |
| AURREKONTU EMAITZA | 1.122.739,68 |
| DOITZEAK | |
| (-) Finantzaketaren desbideraketa positiboak | 1.006.439,96 |
| (+) Finantzaketaren desbideraketa positiboak | 0,00 |
| Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak | 108.643,18 |
| AURREKONTU EMAITZA DOITUA | 224.942,90 |

## V.3. DIRUZAINTZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

| Kontzeptua | 2006 |
|---|---|
| (+) KOBRATZEKO DAUDEN ESKUBIDEAK | 1.053.161,63 |
| Diru-sarreren aurrekontua: ekitaldiko aurrekontua | 1.004.940,47 |
| Diru-sarreren aurrekontua: itxitako ekitaldiak | 170.582,01 |
| Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | 16.237,51 |
| Gastuak ordaintzea | 0,00 |
| (-) Dirubilketa zaileko eskubideak | -138.114,88 |
| (-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak | -483,48 |
| - ORDAINTZEKO DAUDEN ORDAINSARIAK | 710.478,04 |
| Ekitaldiko aurrekontukoak | 513.339,03 |
| Itxitako aurrekontuetakoak | 5.328,03 |
| Diru-sarreren itzulketak | 34,27 |
| Aurrekontuz kanpoko gastuak | 191.776,71 |
| Diruzaintzako funts likidoak | 734.010,32 |
| Finantziazio-desbideraketa metatu negatiboak | 0,00 |
| DIRUZAINTZAKO GERAKINA, GUZTIRA | 1.076.693,91 |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen diruzaintzako gerakina | 217.291,19 |
| Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina | 572.101,34 |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | 287.301,38 |

V.4. EGOERAREN BALANTZEA

AKTIBOA

| Izena | 2005 | 2006 |
|---|---|---|
| **A) IBILGETUA** | **11.300.681,66** | **11.521.471,76** |
| 1. Ibilgetu materiala | 9.446.209,27 | 9.059.342,88 |
| 2. Ibilgetu ez-materiala | 4.431,84 | 4.431,84 |
| 3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 1.850.040,55 | 2.457.697,04 |
| 4. Herri ondasunak | | 0,00 |
| 5. Finantza-ibilgetua | 0,00 | 0,00 |
| **B ZENBAIT EKITALDITAN BANATU BEHARREKO GASTUAK** | **0,00** | **0,00** |
| 6. Deuseztatu beharreko gastuak | 0,00 | 0,00 |
| **C ZIRKULATZAILEA** | **1.020.747,18** | **1.948.405,71** |
| 7. Izakinak | 0,00 | 0,00 |
| 8. Zordunak | 924.596,39 | 1.214.395,39 |
| 9. Finantza-kontuak | 96.150,79 | 734.010,32 |
| 10. Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak | 0,00 | 0,00 |
| 11. Aplikatzeko dagoen emaitza | 0,00 | 0,00 |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | **12.321.428,84** | **13.469.877,47** |

PASIBOA

| Izena | 2005 | 2006 |
|---|---|---|
| **A FUNTS BEREKIAK** | **9.788.533,62** | **11.264.551,18** |
| 1. Ondarea eta erreserbak | 8.059.356,19 | 8.368.560,54 |
| 2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina) | 308.005,71 | 546.039,34 |
| 3. Kapital-dirulaguntzak | 1.421.171,72 | 2.349.951,30 |
| **B ARRISKU ETA GASTUETARAKO PROBISIOAK** | **0,00** | **0,00** |
| 4. Hornidurak | 0,00 | 0,00 |
| **C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK** | **1.608.352,49** | **1.471.833,64** |
| 5. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak | 1.608.352,49 | 1.471.833,64 |
| **D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK** | **924.542,73** | **733.492,65** |
| 6. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 924.449,70 | 733.009,17 |
| 7. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak eragindako doitzeak | 93,03 | 483,48 |
| **PASIBOA, GUZTIRA** | **12.321.428,84** | **13.469.877,47** |

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak bete behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

• *Aurrekontua onestea bera aplikatu behar deneko ekitaldiaren hasiera baino lehenago.*

• *Zenbait prozedura ezartzea eskudirutan kobratu eta ordaindu behar ez izateko, edo hori gutxiagotan gertatzeko.*

• *Aldian aldiko kutxako kontaketak behar den bezala dokumentatzea.*

• *Funtsen xedapena baterako sinadurarekin egitea; bi sinadurarekin, gutxienez.*

• *Aitorturiko betebeharrak eta eskubideak sortzapenaren printzipioaren arabera erregistratzea.*

• *Ordainagiriak maiztasun handiagoz bidaltzea Agentzia Exekutibora.*

• *Dirulaguntzak ordaindu aurretik, justifikatzea diruz lagundutakoa egin dela.*

### VI.2. LANGILEAK

Langile-gastuak 1.013.411,85 eurokoak dira. Gastuok udalak 2006ko ekitaldian izaniko gastu guztien ehuneko 29 egiten dute.

*Hona gure gomendioak:*

• *Plantilla organikoa araudiak ezarritako datetan onestea eta argitaratzea.*

• *Langileen espedienteei eranstea beren egoera familiarrari buruzko agiria, eta agiri hori eguneratua edukitzea.*

• *Mekanismo bat ezartzea kontrolatzeko eta ikuskatzeko udaleko langileek egindako aparteko orduak.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA

Udalak 2006an erosi zituen ondasun eta zerbitzu arruntek 1.259.618,32 euro egin zuten; dirukopuru hori gastu guztien ehuneko 36 da.

| Espedientea | Zenbatekoa |
|---|---|
| Udal-langileentzako aseguru baten kontratazioa | 1.721 |
| Aholkularitza tekniko-juridikoa | 4.900 |
| Zentro termo-ludikoko igogailuaren mantentze-lanak | 2.220 |

Gure berrikusketaren arabera, modu arrazoizkoan errespetatu da aplikatzekoa den araudia, nahiz eta udalaren hirigintza-aholkulariarekin izan den laguntza-kontratua luzatu eta gainditu egin den 10/1998 Foru Legean ezarritako 6 urteko gehieneko epea.

*Hona gure gomendioak:*

• *Zerbitzuak emateko kontratuen luzapenak direla-eta, ez gainditzea Kontratuei buruzko Foru Legeak ezarritako gehieneko epea.*

### VI.4. INBERTSIOAK

Inbertsioek, 2006an, 904.225,63 euro egin zuten, udalaren gastu guztiaren ehuneko 26. Exekuzioa hain txikia –% 19koa– izatearen arrazoia da aurreikusita zeuden obra batzuk ez direla egin edo ez direla amaitu, hala nola kultur zentroa edo urbanizatze-lan batzuk.

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

| Espedientea | Adjudikatzeko prozedura | Lizitazioa | Esleipena |
|---|---|---|---|
| Lurrezko futbol zelaia | Prozedura irekia, enkante bidez | 134.418,54 | 100.531,63 |
| Kaleak zaharberritzea: Malón de Echaide kalea eta Foruen plazaren ingurukoak | Prozedura irekia, enkante bidez | 431.323,56 | 396.817,67 |

Eginiko azterketaren ondorioa da berrikusitako obren kontratazio-espedienteetan tramitazioa eta adjudikazioa, oro har, legediaren arabera egin direla.

VI.5. INBENTARIOA-IBILGETUA

• *Udal ondasunak –jabari publikokoak, ondarekoak eta herri ondasunak– eskrituretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*

• *1990eko udal inbentarioa gaurkotu eta onestea, eta altak eta bajak kontrolatzeko eta jarraitzeko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzea eta kontabilitateko ibilgetuarekin lotuta egotea erraztuko duena.*

VI.6. HIRIGINTZA

Cascanteko Udalaren hirigintza-plana 2004ko abuztuan onetsi zen; tramitatzen ari zela, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea sartu zen indarrean.

2006an hirigintza-hitzarmen bat onetsi zen, non ezarri baitzen ezen, R-12 exekuzio-unitatean, aprobetxamenduaren nahitaezko eta doaneko lagapena egin beharrean –% 10eko lagapena–, ordain ekonomikoa emanen zela. Hitzarmen horren aurka errekurtsoa jarri zen, eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak ebatzi du udal-espedientean ezarritako diru-kopuruaren ordez beste dirukopuru bat jarri behar dela, adituek eginiko tasazio berri batek erabakitzen duena hain zuzen, eta tasazioa, betiere, auzitegiak zehaztutakoaren arabera egina.

*Hona gure gomendioak:*

• *Hirigintza planeamendua aztertzea eta, beharrezkoa balitz, gaurkotzea, bete gabe dauden alderdiak egokitze aldera Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora.*

• *Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eta kontrola egitea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta ondasunen inbentarioan adieraztea horiek hirigintza-legedian ezarritako helburuetara atxikirik daudela.*

• *Hirigintza-hitzarmen bat tramitatzen denean, espedienteei gehitzea araudiak ezartzen dituen txostenak: adituen balioztatze-txostena, legeak ezartzen dituen irizpideen arabera egina, justifikazioa eta abar.*

*Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.*

Iruñean, 2009ko martxoaren 24an.

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

# Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Berriozarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (10. or.).

**I.** Sarrera (10. or.).

**II.** Helburua (11. or.).

**III.** Norainokoa (11. or.).

**IV.** Iritzia (12. or.).

IV.1. Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraa (12. or.).

IV.2. Legezkotasuna (12. or.).

IV.3. 2007ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (12. or.).

**V.** Iruzkin eta gomendio orokorrak (12. or.).

Eranskina: 2007ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

### TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

Comptos Ganberak Berriozarko Udalaren fiskalizazioa egin du; Berriozarrek 8.636 biztanle ditu.

Udalaren 2007ko kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan bere gastuetako eta diru-sarretako aurrekontuen likidazioaren eta egoera ekonomiko eta ondarezkoaren irudi leiala adierazten duela.

Legezkotasun-analisiari dagokionez, txostenean adierazten da udalaren jarduera araudi indarduna errespetatuz gauzatzen dela.

2007an, 6,8 milioi gastatu ziren, eta diru-sarrerak 24,1 milioi eurokoak izan ziren. Alde hori gertatu zen zenbait lurzati saldu zirelako, 17 milioi truke, eta inbertsioak egitean atzerapena gertatu zelako.

Udalak 985.431 euroko superabit doitua izan zuen, eta 989.464 euroko diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako. Zorpetzea ehuneko bikoa da; zorpetzearen muga, berriz, ehuneko 16koa.

Azpimarratzekoa da oroitidazkian ageri den azterketa zerbitzuen kostuei eta diru-sarrerei buruz; kostuetan sartzen dira amortizazioa eta egiturazko kostuen banaketa, eta ibilgetua eta haren amortizazioa ere kontabilizatuta daude.

### I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren 2007ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Berriozarko Udalak 2,7 km$^2$-ko azalera du. 8.636 biztanle ditu eta hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

Euroak

| Entitatea | Aitorturiko betebeharrak | Aitorritako eskubideak | Langileak 2007-12-31n |
|---|---|---|---|
| Udala | 6.828.469,16 | 24.128.069,49 | 73 |

Udala ondoko mankomunitate hauetako parte da:

• Iruñerriko Mankomunitatea, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendukoak eta eskualdeko hiri garraiokoak.

• Antsoain, Berriozar eta Berriobeitiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Horren bidez emaniko zerbitzuak dira etxez etxeko laguntza, drogamenpekotasun-programa eta abegi eta gizarte-orientazioa.

2006ko ekitaldian Berriozarko Udalari aplikatzekoa izandako araubide juridikoa honako hau izan da, funtsean:

• Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

• Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

• 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua onesten duena.

• Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.

• Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

• Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

• Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 Foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

• Berriozarko Udalaren exekuzio-oinarriak.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburua adierazten da. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa, eta laugarrenean, kontu orokorrari, legezkotasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2007ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Berriozarko Udaleko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Berriozarko Udalaren 2007ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Berriozarko Udalak 2007an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Zein zen udalaren finantza-egoera 2007ko abenduaren 31n.

d) Egin zuen azken fiskalizazio-txostenean, zeina 2006ko ekitaldiari buruzkoa baita, Comptos Ganbera honek eman zituen gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Berriozarko Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

• Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

• Entitatearen egoera-balantzea.

• Galera eta irabazien kontua.

• Oroitidazkia.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Berriozarko Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

### IV.1. UDALAREN 2007KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz.

### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

### IV.3. 2007KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA.

Behin betiko aurrekontua 10.149.476 eurokoa da. Gastuen betetze-maila ehuneko 67koa da, 6.828.469 euro, eta diru-sarrerena, ehuneko 89koa, 24.128.069 euro.

Betetze-mailan halako desberdintasuna egotearen arrazoi nagusiak dira, batetik, zenbait obra atzerapenez hasi izana –inbertsioen kapituluaren betetze-mailak, horrela, ehuneko 31 egiten du– eta, bestetik, Artiberri II sektoreko lurzatien salmenten betetze-maila handia –17 milioi euro truke eginiko salmenta–, zeina hasieran ez baitzegoen aurreikusita.

Inbertsio errealen besterentzeek udalaren diru-sarreren ehuneko 70 egiten dute, eta zergek eta tasek, ehuneko 14. Zuzeneko zergen betetze maila ehuneko 101ekoa da, eta zeharkako zergena ehuneko 225ekoa; inbertsio errealen besterentzearen betetzeak, aldiz, ehuneko 188.647 egiten du, Artiberri II sektoreko lurzatien salmenta dela eta. Bestalde, langileen gastuek eta ondasun eta zerbitzuen erosketakoek betebehar aitortuen guztizkoaren ehuneko 66 egiten dute.

Ekitaldia ixtean superabit doitua 985.431eurokoa zen (313.546 eurokoa 2006ko ekitaldian).

Ekitaldi honetan, zorpetzea, 2007ko abenduaren 31n, 1.662.666 milioi eurokoa izan da (2006ko ekitaldian 1.744.268 eurokoa izan zen)

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, etorkizuneko ekitaldietako gastuak finantzatzeko likidezia, 989.464 eurokoa zen 2007ko ekitaldia ixtean.

Ekitaldia ixtean udalaren finantza-egoeraren ezaugarriak hauexek ziren: ehuneko 2ko zorpetze-maila, eta ehuneko 16ko zorpetze-muga.

### IV.4. AURREKO HILABETEETAN COMPTOS GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Oro har, aurreko txostenetako gomendio nagusiak kontuan hartu dituzte.

## V. IRUZKIN ETA GOMENDIO OROKORRAK

Jarraian doaz, eginiko lana oinarri, gure gomendioak eta udal-hirigintzari buruzko zenbait iruzkin.

*Hona gure gomendioak:*

- *Aurrekontua onestea dagokion ekitaldia hasi aurretik, kudeaketarako oinarrizko lanabesa izan dadin.*
- *Behar diren prozedurak ezartzea kreditu-aldaketen izapidetzea, eta halakorik balego kasuko argitalpenak ere, likidazioaren ekitaldiko abenduaren 31 baino lehen buka daitezen.*
- *Oroitidazkia egitea, finantza-egoera orrien beste osagai bat den aldetik.*
- *Argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean ordenantza fiskalen behin betiko onespena.*

Hirigintza

Berriozarko Udalak duen planeamendu orokorrak hamar urte baino gehiago ditu, eta, beraz, hura idaztean helburu zirenak agortuta daude. Planeamendua onetsi zenetik nabarmen aldatu

denez hirigintzaren arloko legedia, lankidetza-hitzarmen bat sinatu da Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako zerbitzuarekin, Berriozarko hirigintza-planeamendua idazteko eta plan horren jarraipenerako batzordea eratzeko.

Udal plan berria idazteko lanak 2006an esleitu ziren, eta, uneotan, idazte-fasean daude.

2007an, Berriozarko R-8 unitatearen birzatiketa onetsi zen; arau subsidirioetako unitate horretan, 160 etxebizitza eraikitzea dago aurreikusita.

Udalak Lurzoruaren Udal Ondarearen berariazko inbentario bat dauka, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri bezala.

Era berean, hirigintza-hitzarmenen eskuzko erregistro bat du, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 26. artikuluan arautútakoa betetze aldera.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko martxoaren 23an

Jarduneko lehendakaria: Luis Ordoki Urdazi

---

# Zangozako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko apirilaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Zangozako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2009ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## Zangozako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2007ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

Txosten exekutiboa edo laburpena (13. or.).

**I.** Sarrera (14. or.).

**II.** Helburua (15. or.).

**III.** Norainokoa eta mugak (15. or.).

**IV.** Iritzia (16. or.).

IV.1. Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra (16. or.).

IV.2. Legezkotasuna (16. or.).

IV.3. Finantza-egoera (16. or.).

IV.3.1. Udala (16. or.).

IV.3.2. Zahar-etxea (16. or.).

IV.3.3. Musika eskola (16. or.).

IV.3.4. Kirol Patronatua (16. or.).

IV.3.5. Egoera metatua (16. or.).

**V.** 2007ko Kontu Orokorraren laburpena (18. or.).

V.1. Udala (18. or.).

V.2. Zahar-etxea (20. or.).

V.3. Musika Eskola (22. or.).

V.4. Kirol Patronatua (24. or.).

V.5. Metatua (26. or.).

**VI.** Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (30. or.).

VI.1. Antolaketa orokorra eta barne-kontroleko sistema (30. or.).

VI.2. Aurrekontuaren likidazioa eta finantza-egoera (30. or.).

VI.3. Inbentarioa-Ibilgetua eta zordunak (balantzea) (30. or.).

VI.4. Diruzaintza (30. or.).

VI.5. Hirigintza (30. or.).

### TXOSTEN EXEKUTIBOA EDO LABURPENA

Comptos Ganberak Zangozako Udalaren fiskalizazioa egin du. Zangozak 5.128 biztanle ditu, eta honako erakunde autonomoak dauzka: Zahar-etxea, Musika Eskola eta Kirol Patronatua.

Udalaren 2007ko Kontu orokorrak alderdi esanguratsu guztietan bere gastuen eta dirusarreren aurrekontuen likidazioaren eta egoera

ekonomiko eta ondarezkoaren irudi leiala adierazten duela. Salbuespena ibilgetua da, zeinaren zenbatekoa ezin baita erkatu, gaurkotutako inbentariorik ez dagoelako.

Legezkotasun-analisiari dagokionez, txostenean adierazten da udalaren jarduera araudi indarduna errespetatuz gauzatzen dela.

2007an gehitutako datuena arabera, 6,2 milioi euro gastatu ziren eta 6,1 milioi euroko diru-sarrerak izan ziren, 8,3 milioi euroko behin betiko aurrekontu batetik. Exekuzioaren ehuneko txikia inbertsioen exekuzio baxuari zor zaio nagusiki (ehuneko 33 exekutatu da).

Gehitutako datuen arabera, udalak 634 euroko superabit doitua izan zuen, eta 76.040 euroko diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako. Zorpetzea ehuneko 5,4koa da; zorpetzearen muga, berriz, ehuneko 14,5ekoa.

Udalak ez du bere udal plana gaurkotu. 1999an onetsitakoa dago indarrean.

## I. SARRERA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin eta Nafarroako Comptos Ganerari buruzko abendauren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorriz, Comptos Ganberaren beraren ekimenez, 2008ko jarduera programan Zangozako Udalaren fiskalizazioa (2007ko ekitaldia) sartu zen. Aurrerago, 2008ko apirilean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak, Nafarroa Bai parlamentu-taldearen ekimenez, erabaki zuen Comptos Ganberari eskatzea aipatu udalaren fiskalizazioari buruzko txosten bat igortzeko.

Zangozako Udalak 5.128 biztanle dauzka eta 69,8 km$^2$-ko azalera. Hauexek dira bertako zifra adierazgarrienak 2007ko abenduaren 31n:

| Entitatea | Aitorturiko betebeharrak | Aitorturiko eskubideak | Langileak 2007-12-31n |
|---|---|---|---|
| Udala | 4.851.585 | 4.746.723 | 23 |
| Zahar-etxea | 739.112 | 735.037 | 21 |
| Musika Eskola | 368.749 | 369.147 | 16 |
| Kirol Patronatua | 271.809 | 271.809 | 1 |

Udala Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatean sarturik dago. Mankomunitate horren bidez, honako zerbitzuak ematen dira: goi-presioko uraren hornidura eta saneamendua, hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamenduak eta oinarrizko gizarte zerbitzuak.

Zangozako Udalak, funtsean, honako arauak ditu:

• Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

• Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

• Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.

• Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea.

• Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Foru Legea.

• Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.

• Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 edo 273 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

• Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, azterlanaren norainokoa; eta, laugarrenean, kontu orokorrari, legezkotasunari eta finantza egoerari buruz dugun iritzia. Bosgarren atalean jaso dugu Zangozako Udalaren eta bere erakunde autonomoen finantzen egoera-orrien laburpen bat, eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zangozako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen Kontu Orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze-maila.

c) 2007ko abenduaren 31n udalak zeukan egoera finantzarioa.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Comptos Ganberak Zangozako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du –kontu horretan sartuta daude udalarena berarena eta haren erakunde autonomoena–.

Hona hemen udalak aurkezturiko egoera-orri nagusiak:

• Aurrekontuaren betetze-maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.

• Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera-balantzea.

• Udalaren eta haren erakunde autonomoen irabazien eta galeren kontua.

Fiskalizazioa erakunde autonomoen banakako finantzen egoera-orriei buruzkoa izan da. Hala eta guztiz ere, gehitutako egoera-orri batzuk badaude, kudeatutako bolumen orokorraren zantzu batzuk ematen dituztenak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Zehazki, udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikaturiko oinarrizko prozedura administratiboak ere; ebaluatu dira, halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdi nabarmenenak.

Txostenean jasotzen dira udalaren eta bere menpeko entitateen kudeaketa hobetzeko gure ustez beharrezkoak diren iruzkin eta gomendioak.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Zangozako Udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Kontu hori prestatzeko ardura, baita bere edukiarena ere, udalarena da, eta laburbilduta jasota dago txosten honen V. atalean.

Gure lanaren emaitza gisa, honako iritziak dauzkagu:

### IV.1. UDALAREN 2007KO EKITALDIKO KONTU OROKORRA.

2007ko abenduaren 31n, V. epigrafean ageri den egoeraren balantzearen ibilgetuko saldoek 7,6 milioi euroko zenbatekoa egiten dute. Udalak inbentario zehatzik ez duenez, ezin dugu iritzirik eman ibilgetuaren zenbatekoen arrazoizkotasunari buruz.

2007ko abenduaren 31n, udalak prestatu gabe dauka kontu orokor bateratua.

Aurreko lerrokadetan aipaturiko salbuespenengatik izan ezik, udalaren 2007ko ekitaldiko kontu orokorrek fidelki islatzen dituzte, alderdirik behinenetan, bere gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa, ondare-egoera eta ekonomia- eta ondare-emaitza. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauei jarraituz.

### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun printzipioari jarraituz egin dela.

### IV.3. FINANTZA-EGOERA.

#### IV.3.1. Udala

Udalaren diru-sarreren behin betiko aurrekontua 3,8 milioi eurokoa da, eta gastuena, berriz, 6,9 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 74koa da, eta diru-sarrerena, berriz, ehuneko 70ekoa.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gastuen exekuzioa 4,2 milioi eurotik 4,8 milioi eurora iragan da; diru-sarrerena, berriz, 5,6 milioi eurotik 4,7 milioi eurora jaitsi da.

Exekuzio-maila nagusiki zor zaio bakarrik inbertsioen ehuneko 33 exekutatu izanari. Kapituluen arabera, gastu garrantzitsuena ondasunen eta zerbitzuen erosketari dagokiona da. Guztizkoaren ehuneko 33 egiten du. Diru-sarreren artean, transferentzia arruntek ehuneko 33 egiten dute. Zuzeneko zergak, berriz, aipagarrienak dira, ehuneko 28 egiten baitute. Aurrekontu-emaitza doitua zero da.

#### IV.3.2. Zahar-etxea

Behin betiko aurrekontua 742.659 eurokoa izan da. Exekuzioari dagokionez, diru-sarreretan 735.037 euro exekutatu dira, eta gastuetan, berriz, 739.111 euro. Kapitulu garrantzitsuenak tasak eta prezio publikoak dira, diru-sarretan, 648.852 euro exekutatu baitira; langileen arloan, berriz, 520.263 euroko gastuak izan dira. Aurrekontu-emaitza doitua 235 eurokoa da.

#### IV.3.3. Musika eskola

Behin betiko aurrekontua 386.827 eurokoa izan da. Exekuzioari dagokionez, diru-sarreretan 369.147 euro exekutatu dira, eta gastuetan, berriz, 368.749 euro. Kapitulu garrantzitsuenak diru-sarreretako transferentziak eta tasak dira, 214.505 eta 146.584 euro egiten baitute hurrenez hurren; bitartean, gastuetan, langileei dagozkienak 324.473 eurokoak dira.

Aurrekontu-emaitza doitua 398 eurokoa da.

#### IV.3.4. Kirol Patronatua

Behin betiko aurrekontua 300.374 eurokoa izan da. Exekuzioari dagokionez, gastuetan eta diru-sarreretan 271.808 euro exekutatu dira. Transferentzien bidezko diru-sarrerek 243.111 euro egiten dute; gastuen artean, berriz, transferentziak eta ondasunen erosketak nabarmendu behar dira: 123.637 eta 94.603 euro egiten dute hurrenez hurren. Aurrekontu-emaitza doitua zero da.

#### IV.3.5. Egoera metatua

Udaleko eta haren erakunde autonomoen datuak gehituz gero, honako datuak lortuko ditugu:

Hasierako aurrekontua, 5,2 milioi eurokoa, 8,3 milioiko behin betiko aurrekontu bilakatzen da. Exekuzioa honako hau da: 6,1 milioi diru-sarretan (% 74) eta 6,2 gastuetan (% 75). 2006an, honako-

ak ziren zenbatekoak: 7 milioi diru-sarreretan eta 5,6 milioi gastuetan.

Transferentzia arruntak (2,1 milioi) eta tasa eta prezio publikoak (1,9 milioi) diru-sarreretako kapitulu garrantzitsuenak dira, ehuneko 34 eta 31 egiten baitute hurrenez hurren.

Gastuen artean, langileen gastuek (2 milioi) eta ondasunen erosketek (1,9 milioi) ehuneko 33 eta 31 egiten dute hurrenez hurren.

Aurrekontu-emaitza doituak 634 euro egiten du eta gastu orokorretarako diru-zaintzako gerakinak, berriz, 76.040 euro.

2007ko abenduaren 31n, zorra 2,5 milioikoa zen. Zorpetze-maila ehuneko 5,4koa da eta zorpetze-muga, berriz, ehuneko 14,5ekoa.

# V. 2007ko kontu orokorraren laburpena

## V.I. Udala

### V.I.I. Aurrekontuaren betetzea

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera (udala)

| Diru-sarreren kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikusp enak | Aitorturiko eskubide garbiak | % Betetzea (%) | Kitatutakoa, guztira | Likidatua (%) | Kobratzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 1.258.545 | 17.300 | 1.275.845 | 1.351.656 | 106 | 1.228.496 | 91 | 123.160 |
| 2. Zeharkako zergak | 360.000 | - | 360.000 | 206.728 | 57 | 83.075 | 40 | 123.653 |
| 3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 678.473 | 245.169 | 923.642 | 1.095.527 | 119 | 894.172 | 82 | 201.355 |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.432.831 | 19.525 | 1.452.356 | 1.571.624 | 108 | 1.383.906 | 88 | 187.718 |
| 5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob. | 102.493 | - | 102.493 | 130.882 | 128 | 34.898 | 27 | 95.984 |
| 6. Inbertsio erreralak besterentzea | - | 90.259 | 90.259 | 11.249 | 12 | 11.249 | 100 | - |
| 7. Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa | - | 1.744.702 | 1.744.702 | 379.056 | 22 | 175.365 | 46 | 203.691 |
| 8. Aktibo finantzarioak | - | 950.273 | 950.273 | - | 0 | - | - | - |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **3.832.342** | **3.067.228** | **6.899.570** | **4.746.722** | **74** | **3.811.161** | **83** | **935.561** |

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera (udala)

| Gastuen kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikusp enak | Aitorturiko betebehar garbiak | Bete-tzearen % | Ordain-ketak | Likidatua (%) | Ordaintzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 1.170.353 | (11.570) | 1.158.783 | 1.151.016 | 99 | 1.116.907 | 97 | 34.109 |
| 2. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 1.537.371 | 55.402 | 1.592.773 | 1.589.582 | 100 | 1.359.018 | 85 | 230.564 |
| 3. Finantza-gastuak | 113.661 | (36.644) | 77.017 | 77.017 | 100 | 77.017 | 100 | - |
| 4. Transferentzia arruntak | 795.700 | 13.100 | 808.800 | 792.763 | 98 | 531.601 | 67 | 261.162 |
| 6. Inbertsio errealak | - | 2.989.019 | 2.989.019 | 977.260 | 33 | 731.924 | 75 | 245.336 |
| 7. Kapital-transferentziak | - | 42.897 | 42.897 | 33.666 | 79 | - | 0 | 33.666 |
| 9. Pasibo finantzarioak | 215.256 | 15.025 | 230.281 | 230.281 | 100 | 230.281 | 100 | - |
| **Gastuak, guztira** | **3.832.341** | **3.067.229** | **6.899.570** | **4.851.585** | **70** | **4.046.748** | **83** | **804.837** |

## V.I.2. Balantzea

AKTIBOA (udala)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1 . Ibilgetu materiala | 5.964.111 | 5.187.362 | 776.749 |
| 2 . Ibilgetu ez-materiala | 148.411 | 148.411 | - |
| 3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 1.342.046 | 1.152.783 | 189.263 |
| **A. IBILGETUA** | **7.454.568** | **6.488.556** | **966.012** |
| 8. Zordunak | 1.747.163 | 2.495.924 | (748.761) |
| 9. Kontu finantzarioak | 938.099 | 335.295 | 602.804 |
| **C. ZIRKULATZAILEA** | **2.685.262** | **2.831.219** | **(145.957)** |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | **10.139.830** | **9.319.775** | **820.055** |

PASIBOA (udala)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Ondarea eta erreserbak | 1.022.777 | 1.022.777 | - |
| 2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina) | 1.791.366 | 1.117.663 | 673.703 |
| 3. Kapital-dirulaguntzak | 3.379.985 | 3.000.928 | 379.057 |
| **A FUNTS BEREKIAK** | **6.194.128** | **5.141.368** | **1.052.760** |
| 4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak | 2.569.870 | 2.800.152 | (230.282) |
| **C. EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK** | **2.569.870** | **2.800.152** | **(230.282)** |
| 5. Epe laburreko hartzekodunak | 1.375.832 | 1.378.255 | (2.423) |
| **D. EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK** | **1.375.832** | **1.378.255** | **(2.423)** |
| **PASIBOA, GUZTIRA** | **10.139.830** | **9.319.775** | **820.055** |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

## V.I.3. Ekonomia- eta ondare-emaitza

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 61. Langileria gastuak | (1.152.619) | (1.184.159) | 31.540 |
| 62. Finantza-gastuak. | (77.018) | (84.241) | 7.223 |
| 63. Tributuak | (1.098) | (1.095) | (3) |
| 64. Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak | (1.586.881) | (1.478.964) | (107.917) |
| 67. Transferentzia arruntak | (792.763) | (960.110) | 167.347 |
| 68. Kapital transferentziak | (33.666) | (28.194) | (5.472) |
| **Gastu arruntak, guztira** | **(3.644.045)** | **(3.736.763)** | **92.718** |
| 70. Salmentak | 482.925 | 469.372 | 13.553 |
| 71. Ondasunaren eta enpresaren errenta | 707.005 | 314.539 | 392.466 |
| 72. Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak | 1.261.333 | 1.537.393 | (276.060) |
| 73. Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak | 210.440 | 207.062 | 3.378 |
| 76. Transferentzia arruntak | 1.571.624 | 1.463.199 | 108.425 |
| 77. Kapitalaren gaineko zergak | 86.612 | 39.368 | 47.244 |
| 78. Bestelako diru-sarrerak | 21.115 | 344.248 | (323.133) |
| **DIRU-SARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA** | **4.341.054** | **4.375.181** | **(34.127)** |
| **EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTAK (saldo hartzekoduna)** | **697.009** | **638.418** | **58.591** |
| Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa | (23.306) | (5.770) | (17.536) |
| **ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna)** | **673.703** | **632.648** | **41.055** |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

## V.2. ZAHAR-ETXEA

### V.2.I. Aurrekontuaren betetzea

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera (zahar-etxea)

| Diru-sarreren kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikus-penak | Aitorturiko eskubide garbiak | % Betetzea (%) | Kitatu-takoa, guztira | Likidatua (%) | Kobratzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 665.385 | - | 665.385 | 648.852 | 98 | 647.451 | 100 | 1.401 |
| 4. Transferentzia arruntak | 45.496 | 18.900 | 64.396 | 80.076 | 125 | 37.050 | 46 | 43.026 |
| 5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob. | 125 | - | 125 | 109 | 87 | 109 | 100 | - |
| 7. Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa | - | - | - | 6.000 | - | 6.000 | 100 | - |
| 8. Aktibo finantzarioak | - | 12.753 | 12.753 | - | - | - | - | - |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **711.006** | **31.653** | **742.659** | **735.037** | **99** | **690.610** | **94** | **44.427** |

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera (zahar-etxea)

| Gastuen kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikus-penak | Aitorturiko betebehar garbiak | Bete-tzearen % | Ordain-ketak | Likidatua (%) | Ordaintzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 508.706 | 11.600 | 520.306 | 520.263 | 100 | 509.874 | 98 | 10.389 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 201.800 | 7.300 | 209.100 | 208.038 | 100 | 191.149 | 92 | 16.889 |
| 4. Transferentzia arruntak | 500 | - | 500 | 500 | 100 | 500 | 100 | - |
| 6. Inbertsio errealak | - | 12.753 | 12.753 | 10.310 | 81 | 10.310 | 100 | - |
| **Gastuak, guztira** | **711.006** | **31.653** | **742.659** | **739.111** | **99** | **711.833** | **96** | **27.278** |

## V.2.2. Balantzea

AKTIBOA (zahar-etxea)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Ibilgetu materiala | 36.054 | 25.744 | 10.310 |
| 2. Ibilgetu ez-materiala | 1.863 | 1.863 | - |
| **A. IBILGETUA** | **37.917** | **27.607** | **10.310** |
| 8. Zordunak | 44.442 | 33.672 | 10.770 |
| 9. Kontu finantzarioak | 8.433 | 26.239 | (17.806) |
| **C. ZIRKULATZAILEA** | **52.875** | **59.911** | **(7.036)** |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | **90.792** | **87.518** | **3.274** |

PASIBOA (zahar-etxea)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Ondarea eta erreserbak | 150.954 | 150.954 | - |
| 2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina) | (169.401) | (168.245) | (1.156) |
| 3. Kapital-dirulaguntzak | 72.778 | 66.778 | 6.000 |
| **A FUNTS BEREKIAK** | **54.331** | **49.487** | **4.844** |
| 5. Epe laburreko hartzekodunak | 36.461 | 38.031 | (1.570) |
| **D. EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK** | **36.461** | **38.031** | **(1.570)** |
| **PASIBOA, GUZTIRA** | **90.792** | **87.518** | **3.274** |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

## V.2.3. Ekonomia- eta ondare-emaitza (zahar-etxea)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 61. Langileria gastuak | (520.263) | (505.862) | (14.401) |
| 63. Tributuak | (181) | (167) | (14) |
| 64. Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak | (207.857) | (179.582) | (28.275) |
| 67. Transferentzia arruntak | (500) | (425) | (75) |
| **Gastu arruntak, guztira** | **(728.801)** | **(686.036)** | **(42.765)** |
| 70. Salmentak | 646.573 | 596.425 | 50.148 |
| 71. Ondasunaren eta enpresaren errenta | 3 | 2 | 1 |
| 76. Transferentzia arruntak | 80.076 | 86.106 | (6.030) |
| 78. Bestelako diru-sarrerak | 2.384 | 3.503 | (1.119) |
| **DIRU-SARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA** | **729.036** | **686.036** | **43.000** |
| **EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTAK (saldo hartzekoduna)** | **235** | **-** | **235** |
| Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa | (1.391) | - | (1.391) |
| **ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna)** | **(1.156)** | **-** | **(1.156)** |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

## V.3. MUSIKA ESKOLA

### V.3.1. Aurrekontuaren betetzea

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera (musika eskola)

| Diru-sarreren kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspenak | Aitorturiko eskubide garbiak | Betetzearen % | Kitatutakoa, guztira | Likidatua (%) | Kobratzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 152.171 | - | 152.171 | 146.584 | 97 | 146.328 | 100 | 256 |
| 4. Transferentzia arruntak | 226.264 | 1.137 | 227.401 | 214.504 | 95 | 193.820 | 90 | 20.684 |
| 5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob. | 5 | - | 5 | 2 | 40 | 2 | 100 | - |
| 7. Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa | - | 7.250 | 7.250 | 8.057 | 111 | 6.920 | 86 | 1.137 |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **378.440** | **8.387** | **386.827** | **369.147** | **95** | **347.070** | **94** | **22.077** |

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera (musika eskola)

| Gastuen kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikus-penak | Aitorturiko betebehar garbiak | Bete-tzearen % | Ordain-ketak | Likidatua (%) | Ordaintzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 333.480 | - | 333.480 | 324.473 | 97 | 318.242 | 98 | 6.231 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 44.960 | - | 44.960 | 36.219 | 80 | 22.509 | 62 | 13.710 |
| 6. Inbertsio errealak | - | 8.387 | 8.387 | 8.057 | 96 | 7.175 | 89 | 882 |
| **Gastuak, guztira** | **378.440** | **8.387** | **386.827** | **368.749** | **95** | **347.926** | **94** | **20.823** |

## V.3.2. Balantzea

AKTIBOA (musika eskola)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Ibilgetu materiala | 81.961 | 63.490 | 18.471 |
| 2. Ibilgetu ez-materiala | 3.741 | 2.604 | 1.137 |
| **A. IBILGETUA** | **85.702** | **66.094** | **19.608** |
| 8. Zordunak | 22.077 | 24.343 | (2.266) |
| 9. Kontu finantzarioak | 16.728 | 7.693 | 9.035 |
| **C. ZIRKULATZAILEA** | **38.805** | **32.036** | **6.769** |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | **124.507** | **98.130** | **26.377** |

PASIBOA (musika eskola)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Ondarea eta erreserbak | 18.588 | 18.588 | - |
| 2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina) | 73.355 | 61.805 | 11.550 |
| 3. Kapital-dirulaguntzak | 11.254 | 3.197 | 8.057 |
| **A FUNTS BEREKIAK** | **103.197** | **83.590** | **19.607** |
| 5. Epe laburreko hartzekodunak | 21.310 | 14.540 | 6.770 |
| **D. EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK** | **21.310** | **14.540** | **6.770** |
| **PASIBOA, GUZTIRA** | **124.507** | **98.130** | **26.377** |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

## V.3.3. Ekonomia- eta ondare-emaitza (musika eskola)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 61. Langileria gastuak | (324.661) | (323.117) | (1.544) |
| 63. Tributuak | (181) | (167) | (14) |
| 64. Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak | (35.850) | (34.950) | (900) |
| **GASTU ARRUNTAK, GUZTIRA** | **(360.692)** | **(358.234)** | **(2.458)** |
| 70. Salmentak | 146.397 | 144.317 | 2.080 |
| 71. Ondasunaren eta enpresaren errenta | 2 | 2 | - |
| 76. Transferentzia arruntak | 214.504 | 225.118 | (10.614) |
| 78. Bestelako diru-sarrerak | 187 | 347 | (160) |
| **DIRU-SARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA** | **361.090** | **369.784** | **(8.694)** |
| **EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTAK (saldo hartzekoduna)** | **398** | **11.550** | **(11.152)** |
| **ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna)** | **398** | **11.550** | **(11.152)** |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

# V.4. Kirol Patronatua

## V.4.I. Aurrekontuaren betetzea

### Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera (kirol patronatua)

| Diru-sarreren kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikus-penak | Aitorturiko eskubide garbiak | Bete-tzearen % | Kitatutakoa, guztira | Likidatua (%) | Kobratzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 10.716 | - | 10.716 | 5.435 | 51 | 5.435 | 100 | - |
| 4. Transferentzia arruntak | 243.312 | - | 243.312 | 243.111 | 100 | 223.186 | 92 | 19.925 |
| 5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob. | 646 | - | 646 | 654 | 101 | 654 | 100 | - |
| 7. Administrazio orokorrak entitateari transferitutakoa | - | 45.700 | 45.700 | 22.608 | 49 | - | | - |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **254.674** | **45.700** | **300.374** | **271.808** | **91** | **229.275** | **84** | **19.925** |

### Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera (kirol patronatua)

| Gastuen kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreikus-penak | Aitorturiko betebehar garbiak | Bete-tzearen % | Ordain-ketak | Likidatua (%) | Ordaintzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 30.961 | - | 30.961 | 30.961 | 100 | 30.348 | 98 | 613 |
| 2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea | 99.200 | (1.760) | 97.440 | 94.603 | 97 | 88.072 | 93 | 6.531 |
| 4. Transferentzia arruntak | 124.513 | - | 124.513 | 123.637 | 99 | 88.559 | 72 | 35.098 |
| 6. Inbertsio errealak | - | 47.460 | 47.460 | 22.608 | 48 | 22.608 | 100 | - |
| **Gastuak, guztira** | **254.674** | **45.700** | **300.374** | **271.809** | **90** | **229.587** | **96** | **42.242** |

## V.4.2. Balantzea

AKTIBOA (kirol patronatua)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Ibilgetu materiala | 90.565 | 67.957 | 22.608 |
| **A. IBILGETUA** | **90.565** | **67.957** | **22.608** |
| 8. Zordunak | 43.959 | 34.511 | 9.448 |
| 9. Kontu finantzarioak | 458 | 515 | (57) |
| C. ZIRKULATZAILEA | 44.417 | 35.026 | 9.391 |
| AKTIBOA, GUZTIRA | 134.982 | 102.983 | 31.999 |

PASIBOA (kirol patronatua`)

| Izena | 2007 | 2006(*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina) | 14.422 | 14.422 | - |
| 3. Kapital-dirulaguntzak | 76.143 | 53.535 | 22.608 |
| A FUNTS BEREKIAK | **90.565** | **67.957** | **22.608** |
| 5. Epe laburreko hartzekodunak | 44.417 | 35.026 | 9.391 |
| **D. EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK** | **44.417** | **35.026** | **9.391** |
| PASIBOA, GUZTIRA | 132.982 | 102.983 | 31.999 |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

## V.4.3. Ekonomia- eta ondare-emaitza (kirol patronatua)

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 61. Langileria gastuak | (30.961) | (31.000) | 39 |
| 64. Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak | (94.603) | (94.821) | 218 |
| 67. Transferentzia arruntak | (123.637) | (116.012) | (7.625) |
| GASTU ARRUNTAK, GUZTIRA | **(249.201)** | **(241.833)** | **(7.368)** |
| 70. Salmentak | 6.090 | 7.019 | (929) |
| 76. Transferentzia arruntak | 243.111 | 234.814 | 8.497 |
| DIRU-SARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA | **249.201** | **241.833** | **7.368** |
| EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTAK (saldo hartzekoduna) | - | - | - |
| ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna) | - | - | - |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

## V.5. METATUA

### V.5.1. Aurrekontuaren betetze-maila

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

| Diru-sarreren kapituluak | Hasierako aurreikus-pena | Aldaketak | Behin betiko aurreikus-penak | Aitorturiko eskubide garbiak | Bete-tzearen % | Kobratu-takoa | Kobran-tzak | Kobratzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 1.258.545 | 17.300 | 1.275.845 | 1.351.656 | 106 | 1.228.496 | 91 | 123.160 |
| 2. Zeharkako zergak | 360.000 | - | 360.000 | 206.728 | 57 | 83.075 | 40 | 123.653 |
| 3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk | 1.506.745 | 245.169 | 1.751.914 | 1.896.398 | 108 | 1.693.386 | 89 | 203.012 |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.947.902 | 39.562 | 1.987.464 | 2.109.315 | 106 | 1.837.961 | 87 | 271.354 |
| 5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob. | 103.269 | - | 103.269 | 131.647 | 128 | 35.663 | 27 | 95.984 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | - | 90.259 | 90.259 | 11.249 | 12 | 11.249 | 100 | - |
| 7. Administrazio Orokorrak entitateari eginiko transfer. | - | 1.797.652 | 1.797.652 | 415.722 | 23 | 188.286 | 45 | 227.436 |
| 8. Aktibo finantzarioak | - | 963.026 | 963.026 | - | 0 | - | - | - |
| **Diru-sarrerak, guztira** | **5.176.461** | **3.152.968** | **8.329.429** | **6.122.715** | **74** | **5.078.116** | **83** | **1.044.599** |

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

| Gastuen kapituluak | Hasierako kredituak | Aldaketak | Behin betiko aurreiku-spenak | Aitorturiko betebehar garbiak | Bete-tzearen % | Ordain-ketak | Likidatua (%) | Ordaintzeko dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 2.043.501 | 30 | 2.043.531 | 2.026.712 | 99 | 1.975.371 | 97 | 51.341 |
| 2. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan | 1.883.331 | 60.942 | 1.944.273 | 1.928.442 | 99 | 1.660.747 | 86 | 267.695 |
| 3. Finantza-gastuak | 113.662 | (36.644) | 77.018 | 77.018 | 100 | 77.018 | 100 | - |
| 4. Transferentzia arruntak | 920.713 | 13.100 | 933.813 | 916.899 | 98 | 620.660 | 68 | 296.239 |
| 6. Inbertsio errealak | - | 3.057.617 | 3.057.617 | 1.018.236 | 33 | 772.018 | 76 | 246.218 |
| 7. Kapital-transferentziak | - | 42.897 | 42.897 | 33.666 | 79 | - | 0 | 33.666 |
| 9. Pasibo finantzarioak | 215.256 | 15.025 | 230.281 | 230.281 | 100 | 230.281 | 100 | - |
| **Gastuak, guztira** | **5.176.463** | **3.152.967** | **8.329.430** | **6.231.254** | **75** | **5.336.095** | **86** | **895.159** |

### V.5.2. Egoerari buruzko balantzea

AKTIBOA

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Ibilgetu materiala | 6.172.691 | 5.344.553 | 828.138 |
| 2. Ibilgetu ez-materiala | 154.015 | 152.878 | 1.137 |
| 3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 1.342.046 | 1.152.783 | 189.263 |
| **A. IBILGETUA** | **7.668.752** | **6.650.214** | **1.018.538** |
| 8 . Zordunak | 1.857.642 | 2.588.450 | (730.808) |
| 9. Kontu finantzarioak | 963.716 | 369.742 | 593.974 |
| **C. ZIRKULATZAILEA** | **2.821.358** | **2.958.192** | **(136.834)** |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | **10.490.110** | **9.608.406** | **881.704** |

PASIBOA

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 1. Ondarea eta erreserbak | 1.192.319 | 1.192.319 | - |
| 2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina) | 1.709.741 | 1.025.645 | 684.096 |
| 3. Kapital-dirulaguntzak | 3.540.160 | 3.124.438 | 415.722 |
| **A FUNTS BEREKIAK** | **6.442.220** | **5.342.402** | **1.099.818** |
| 4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak | 2.569.870 | 2.800.152 | (230.282) |
| **C. EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK** | **2.569.870** | **2.800.152** | **(230.282)** |
| 5. Epe laburreko hartzekodunak | 1.478.020 | 1.465.852 | 12.168 |
| **D. EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK** | **1.478.020** | **1.465.852** | **12.168** |
| **PASIBOA, GUZTIRA** | **10.490.110** | **9.608.406** | **881.704** |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

### V.5.3. Ekonomia- eta ondare-emaitza

| Izena | 2007 | 2006 (*) | Aldea |
|---|---|---|---|
| 61. Langileria gastuak | (2.028.504) | (2.044.139) | 15.635 |
| 62. Finantza-gastuak. | (77.018) | (84.241) | 7.223 |
| 63. Tributuak | (1.461) | (1.430) | (31) |
| 64. Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak | (1.925.190) | (1.788.317) | (136.873) |
| 67. Transferentzia arruntak | (916.899) | (1.076.547) | 159.648 |
| 68. Kapital transferentziak | (33.666) | (28.194) | (5.472) |
| **GASTU ARRUNTAK, GUZTIRA** | **(4.982.738)** | **(5.022.868)** | **40.130** |
| 70. Salmentak | 1.291.749 | 1.217.133 | 74.616 |
| 71. Ondasunaren eta enpresaren errenta | 707.005 | 314.543 | 392.462 |
| 72. Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak | 1.261.333 | 1.537.393 | (276.060) |
| 73. Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak | 210.440 | 207.062 | 3.378 |
| 76. Transferentzia arruntak | 2.109.315 | 2.009.238 | 100.077 |
| 77. Kapitalaren gaineko zergak | 86.612 | 39.368 | 47.244 |
| 78. Bestelako diru-sarrerak | 23.686 | 238.098 | (214.412) |
| **DIRU-SARRERA ARRUNTAK, GUZTIRA** | **5.690.140** | **5.562.835** | **127.305** |
| **EKITALDIKO EMAITZA ARRUNTAK (saldo hartzekoduna)** | **707.402** | **539.967** | **167.435** |
| Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa | (23.306) | (5.770) | (17.536) |
| **ETEKIN GARBIA, GUZTIRA (saldo hartzekoduna)** | **684.096** | **534.197** | **159.899** |

(*) 2006ko ekitaldiari dagozkion datuen gainean ez du Comptos Ganberak auditoriarik egin.

## V.5.4. Aurrekontuaren emaitza

| | Guztira | Udala | Zahar-etxea | Musika Eskola | Kirol Patronatua |
|---|---|---|---|---|---|
| Aitorturiko eskubideak (2007) | 6.122.716 | 4.746.723 | 735.037 | 369.147 | 271.809 |
| (Aitorturiko betebeharrak, 2007) | 6.231.255 | 4.851.585 | 739.112 | 368.749 | 271.809 |
| **Aurrekontu-emaitza** | **(108.539)** | **(104.862)** | **(4.075)** | **398** | **-** |
| (Urteko finantzaketa-desbideraketa positiboak) | | | | | |
| Urteko finantzaketa-desbideraketa negatiboak | | | | | |
| Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak | 109.173 | 104.862 | 4.310 | - | - |
| **Aurrekontu-emaitza doitua** | **634** | **-** | **235** | **398** | **-** |

## V.5.5. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

| | Guztira | Udala | Zahar-etxea | Musika Eskola | Kirol Patronatua |
|---|---|---|---|---|---|
| Aitorturiko eskubideak. Ekitaldian ordaintzeke | 1.044.599 | 935.562 | 44.427 | 22.077 | 42.533 |
| Aitorturiko eskubideak. Itxitako ekitaldietatik | 643.685 | 643.095 | - | - | 590 |
| Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa | 115.924 | 115.072 | 16 | - | 837 |
| Kobratzeko zaila den saldoa | (306.138) | (306.138) | - | - | - |
| Aitorturiko betebeharrak Ekitaldian ordaintzeke | 895.160 | 804.837 | 27.279 | 20.822 | 42.222 |
| Aitorturiko betebeharrak Itxitako ekitaldietatik | 342.050 | 340.603 | - | 1.447 | - |
| Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa | 204.829 | 176.914 | 9.184 | 16.536 | 2.196 |
| | **884.577** | **858.958** | **8.433** | **16.728** | **458** |
| | **940.608** | **924.195** | **16.413** | **-** | **-** |
| -gerakina | 864.568 | 848.155 | 16.143 | - | - |
| -gerakina | 76.040 | 76.040 | - | - | - |
| | **940.608** | **924.195** | **16.143** | **-** | **-** |

## V.5.6. Ratioak, 2006-2007

| Adierazlea | 2006 | 2007 |
|---|---|---|
| Diru-sarreren betetze-maila | % 114 | % 74 |
| Gastuen betetze-maila | % 91 | % 75 |
| Kobrantzen betetzea | % 74 | % 83 |
| Ordainketen betetzea | % 84 | % 86 |
| Zorpetze-maila | % 5,29 | % 5,40 |
| Zorpetze-muga | % 8,28 | % 14,46 |
| Zorpetze-ahalmena | % 3,00 | % 9,07 |
| Langileriaren indizea | % 36,38 | % 32,52 |
| Inbertsioaren indizea | % 7,27 | % 16,88 |
| Dirulaguntzekiko menpekotasuna | % 36,43 | % 41,24 |
| Diru-sarrerak biztanleko | 1.378 | 1.194 |
| Gastuak biztanleko | 1.100 | 1.215 |
| Diru-sarrera arruntak biztanleko | 981 | 965 |
| Gastu arruntak biztanleko | 636 | 674 |
| Tributu bidezko dirusarrerak biztanle bakoitzeko | 56 | 60 |

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira Comptos Ganberaren aburuz udalak bete beharreko gomendio nagusiak, horrela bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko:

### VI.1. ANTOLAKETA OROKORRA ETA BARNE-KONTROLEKO SISTEMA

• *Barne-arau bat ezartzea gizarte-kolektiboei diru-laguntzak emateko.*

• *Azterlan bat egitea tasak edo prezio publikoak eskuratzea ahalbidetzen duten jardueren kostuei buruz, halako moduz non prezio publiko horiek zehaztuko baitira jarduera bakoitzaren kostuaren arabera.*

• *Kontu-hartzailetzak eta idazkaritzak ekitaldiko hasierako aurrekontuak azaltzeko txostenak egitea.*

• *Kontu-hartzailetzak aldizkakok txostenak egitea aurrekontuaren exekuzioari buruz eta aurrekontu-aldaketei buruz.*

### VI.2. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA FINANTZA-EGOERA

Ondoren, arloari buruzko gomendio nagusiak ematen ditugu:

• *Kontu orokor bakarra onestea legez ezarritako epean.*

• *Kasuko ekitaldia hasi baino lehen onetsi behar dira aurrekontu orokor bakarra eta plantilla organikoa, eta NAOn argitaratu behar dira.*

### VI.3. INBENTARIOA-IBILGETUA ETA ZORDUNAK (BALANTZEA)

• *Ondasunen udal inbentarioa egitea.*

• *Udal inbentarioa etengabe eguneratzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatzea, ibilgetuari buruzko dokumentazioa artxibatzeko eta altak eta bajak kontabilizatzeko prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien kontabilitate-irizpideen arabera.*

• *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak berrikusi eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

• *Udal ondasunen eskrituratze eta erregistratze prozesua osatzea.*

### VI.4. DIRUZAINTZA

Hona gomendioak:

• *Kutxako zenbaketak egin izana dokumentatzea, udal fondoen arduradunek sinatutako agirien bidez.*

### VI.5. HIRIGINTZA

Zangozako Udalean hirigintzaren arloan indarra duen araua 1999ko ekainaren 1eko udal plana da, Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak onetsitakoa.

Arau hori ez dator bat hirigintzaren arloan indarra duten legeekin, zeren eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeari egokitu behar baitzitzaion.

Orain arte, udalak ez du idatziz egin ezein azterlan ekonomiko-finantzariorik, ezta jarduketa-programa bakoitzaren betetze-mailaren berariazko jarraipenik ere.

Udalak ez du lurzoruaren udal ondarea eratu, eta ondare horren bidez lorturiko baliabideak ez daude berorren kontserbazio, mantentze eta handitzeari formalki atxikiak. Ez da Zangozako Udalaren hirigintza-hitzarmenen erregistrorik egiten.

Udalak hirigintza-arloko teknikaririk ez dauka plantillan. Hirigintza-planeamenduaren kudeaketa eta izapidetze teknikoa kanpoko aholku-emaile batekin kontratatu dira 2007ko ekitaldian zehar.

Aurreko iruzkinetatik honako gomendio hauek ondorioztatzen dira:

• *Udala plana Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea.*

• *Azterlan ekonomiko-finantzarioen eta jarduketa programen betetze-mailari buruzko jarraipen egokia egitea.*

• *Lurzoruaren udal ondarea ezartzea, bai eta hirigintza-hitzarmenen erregistro bat ere.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2009ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Inprimatzailea: Ulzama Digital (Iruña).
Lege Gordailua: NA – 363-1995
Paper ekologiko birziklatua